

# LA NUEVA FORMA DE COSER.

# ALFA

Control  
de velocidad  
electrónico.  
Gran  
sencillez  
de  
manejo.



## ALFA

Técnicaaldetalk  
Apartado 30 EIBAR (Guipúzcoa).

© 1984 ALFA

ta alaac, bai cereguin estubac, ta andijac, bai penitencijac, ta bai conciençijaco dudaac, quezcaac eta penaac. Baina bein pusca baten baino, ez eban Santia inoc icutsi triste».

«Sarri iragoten cituban Santa Teresac gau osuac oracinoian negarrez celdaan, edo coru baztar baten Jesus maitiaren aurrian, inoc ezeuzala. Baina andi jaguiten zan, inos pena bat irago ez baleu leguez arpegui alegueriagaz. Sarri evilen cilicijoz ta alambre zorrotzez bere gorputz Virginia lotuta. Baina Teresaren vijotzian, arpeguian eta verbeetan ez eguan secula tristeza illunic. Alegrija gracijosa bat da Santa Teresaren marca aguirija. Au berau errenta orde ichi eutseen escribiduta Santiac bere Monjai, ta cristinau guztiai. Esaten dau: aleguere izatia dala devozinoiaren ta vijotz onaren senalia... Poz artuten davela bere monjaac aleguere icusijagaz... Vizi ditezala espiritu alegueriagaz... Guztiequin tratau daguijeela, ta verba eguin daguijeela modu oneco alegriajagaz... Maria de San Josef, Sevilaco Priorari queseetan jacon Santa Teresa, villancicuac bialdu ez eutsazalaco. Bada naidot nic, esaten deutsa, ceuben artian olgheetia ta alegreetia modu onagaz».

Gero honela jarraitzen du bere aldetik:

«Luurrezco vijotz tristiac eta illunac ez dauca ain pres-taera ona, Jaungoicuari lecu zabala, nasaija ta amodijozcua emoteco».

«Icasiquizunac» saileko bigarren liburuaren amaieran, Teresaren goratzarrezko hitzaldi bat du: «AMA SANTA TERESA JESUSENAREN ONDRARACO ONDO ESATIA».

L. Mitxelenak hitz gutxitan zirrimarratzen du A. Bartolome-ren alderik nabariena. A. Afiibarro eta Zarauzko misiolariak eritzietan zorrotzak, latz samarrak direla dio eta ohitura lasaien etsai; baina horretan hauei eta Mendibururi ere aurrea harturik, lehen tokia A. Bartolomek duela. «elocuente y desenfadado» esaten dio. «Euscal-errijetaco olgheeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba»z zera dio: «cargado de sales, muchos veces gruesas». Sermolari bikain, ditziragarritzat dauka. Haren azalpenak burpil argia dute beti. Bizkaierako prozarik onenatariko pasarte batzuk beronenak direla uste du Mitxelenak. Lexikoa ez du garbi-garbia, baina bai ugari eta aberatsa.

## Haren bizitzaren berri laburra

Bartolorae Madariaga Garate, Markin-Etxebarrian jaio zen 1768.eko abenduaren 21ean. Egun berean, Etxebarriako apaiz zen On Jose Arrizabalagak bataiatu zuen, Bartolome izenez. Aita, Kosme Madariaga zuen; eta ama, Maria Ines Garate. Markinan jaioa aita eta Elgoibarren ama; baina biak, herriz nahiz elizaz, Markinan bizi zirenak.

Aitaren aldetiko aiton-amonak: Bautista Madariaga eta Ursula Bildasolo, Eibarko seme-alabak eta Markinako eliztarrak. Amaren aldetikoak: Santiago Garate eta Maria Cruz Arrieta, biak Elgoibarko seme-alabak eta Markin-Etxebarriko eliztarrak.

Oharra: haren bataio-agiriaren kopia batetatik hartu ditut argibideok.

Karmeldarren Ordenan Lazkaon sartu zelakoa, ez omen da berri zihurra. Irunan eta Tuteran egin zituela ikasketak ere esan ohi da, baina Lino Akesolok dioenez, berraztertu beharra legoke guzti hori, ez baitago oraindik agirietan zihurtaturik. Markinako komentuan urteetan bizi izan zen, bertako sermolari, eta idazle-agiri ta guzti.

1808. urtetik 1815.era arteko gertakari latzak azaltzen dizkio Ordenako Nagusiari. Berriok ematerakoan, 1815.eko azaroaren 12ko fetxa jartzen du. Sinesgarriago egitearren edo, gertakari on lekuko legez, hurbil-hurbiletik bizi izan daituela diotso:

«Certifico yo el infraescrito que por haber vivido en este Convento de Carmelitas de la Villa de Marquina y a media legua de distancia en tiempo de nuestra secularization, en los trece años pasados en calidad de Predicador de casa, la mayor parte de los hechos referidos en estas apuntes los he presenciado y palpado por mi mismo, (...) protestando que no me ha movido interes alguno, ni pasion a exagerar o desfigurar la verdad de los hechos, sino referirlos sencillamente en aquel estilo que juzgo deben tener en la historia».

Hemendik atera daitekenez, 1802. urtean joango zen Markinara, 34 urte laster betetzeko zela. 1820.era arte egon zen Markinan, azkenengo hiru urteetan nagusi izanik. 1817.eko

maiatzetik 1820.era arte, bain zuzen. Ondorengo hiru urteetan ere nagusi izan zen, baina Sestaon karmeldarrek zuten basamortuan. Garai latzak, nahasiak izan haiek, eta gorriak ikusi beharra izan zuten erlijiosoek, komentuak itxiko ez itxiko beti zaiantzan eta nora ezean. Arazo guztiei arpegi ematen saiatu zen A. Bartolome, honi idatzi hari idatzi, orduko Eliz-agintari eta bestelako agintedunei ere makina bat gutun gurutzatu zien. Konstituzio garaiko gobernuaren esanera, etxeko nagusi berriak izendatu behar zituzten. A. Bartolome, bere hotoz izan ezik, beste guztienez birrezarria izan zen nagusikarguan. Gero, galdu egiten dugu haren bizitza-haria, 1829.ean Burgosko komentuan berraurkitzen dugun arte.

Lazkaon hil zen Nobizioen Maisu zelarik. Baina ez dakigu zihur haren heriotzako urterik ez egunik. Lazkaon Beneditarren Abatetxean (lehenago karmendarren komentu izandakoan) heriotzagiria dator, beste zertzelada batzukin: haren jaiotzaren berri ematen du eta Nobizioen Maisu zela adierazi ondoren, Koreillan profesa egindakoa zela eta 44 urte eman zituela karmeldar-bizitzan. Baina noiz hil zenik ez. 1835.eko abenduko fetxa dakarren hildakoen zerrenda batetan dator, baina gerratea zen eta erlijioso bizitzak edonoiz izan ohi zituene eten-uneak; hortik fetxa-kontuan dugun iluntasun hau. Beraz, zihur-zihurra ez da heriotz-urtetzat eman ohi den 1835.-ekoa. (Ikus L. AKESOLO, «Fr. Bartolome de Santa Teresa y su Plauto Bascongado». Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País aldizkariaren 1968. urteko 3. eta 4. alean).

#### A. Bartolome-ren euskarazko lama

Euskaraz egindako lana, Markinan egindakoa da, urte gutxiren barman egindakoa, izan ere. Sakramentuena, nagusi zela, priore zela —hauxe da euskarazkoetatik azkena, 1819.-ekoa—; beste hirurak, bertako sermolari zela.

EUSCAL-ERRIJETACO OLGUEETA TA DANTZEEN NEURRIZCO-GATZ-OZPINDUBA da haren lehenengo euskal liburua. 1816. urtean argitaratu zen Irunan, «Joaquin Domingo Nausijaren, eta Gaztiaren Liburuguillaan». Beste hirurak ere Irunan, baina «Rada Alargunaren liburuguillaan».

Olgeta ta dantzen liburuaz geroxeago, haren aztertzaileek oharrak eta zuzenketak egin ordukoxe aurkeztu du, urte berean, ICASIQUIZUNAC saileko lehen liburua. Reus-en 1816-eko maiatzaren 20an ospatzen zen Kontseilari Nagusien batzarrean (Definitorio Generalean) aurkezten du baimen eske.

Goian aipatu dut urte luzeetan bizi izan zela Markinako komentuan bertako sermolari eta idazle-agiri ta guzti. Sermolari zena, guztiek dakiten zera da, bere burua horrela aurkezten baitu beti, sakramentuen alean izan ezik: «Aita Prai Bartolome Santa Teresa Marquinaco Carmen Ortoceco Predicadoriac prestauba», edo «ateraac» ICASIQUIZUNAC liburu-etan. Sakramentuen alean, «...Prioriac ateraac» dio, orduan priore baitzen. Baina, aintzina karmeldarren komentuetan, sermolari karguaz gainera, idazle-agiridun bat ere egon ohi zela oso gutxik jakingo du. Nik, Higinio Gandarias, Nafarroako S. Jokin Probintziko Karmeldarren artxibuzainari esker jakin ahal izan dut, honek agiri jakingarri bat eskuratu zidalako.

Benin eta berriro aipatzen da idazle-agiriaren arazoa. Ez hori bakarrik; agiri horren jabe izaten jarraitzekotan, lantzean-lantzean liburutxuren bat atera beharra zegoen dirudie-nez. Ez zegoen, ez, luma bertan-behera uzterik, eta horrela osotu zuen A. Bartolomek bere ICASIQUIZUNAC liburuen saila. Hona hitzez-hitz, goian aipaturiko batzarre horrek dioena:

«Otro (memorial) del P. Predicador de Marquina Fr. Bartolome de S. Teresa en el que responde a los reparos puestos por los Revisores de su obrita sobre Bayles del Pais, y presenta un escrito de platicas doctrinales conforme a lo mandado para continuar en el uso de la patente de escritor, y por votos secretos se le concedio licencia para imprimir la mencionada obrita con las notas y enmiendas puestas por los Revisores».

Firman: Fr. Antonio de la Soledad, General...

Batzarre hori, 1816.eko maiatzaren 20an izanik, geroxeago argitaratua izan behar hemen «obrita» deritzen arren, haren lanen artean herrikoiena eta orduko ohiturak ezagutzeko

bitxi bakana den hau. A. Bartolome-ren hasikinari —gerokoei bezala— idazle etorritsu eta hitz-olde indartsuaren kutsua dario.

ICASIQUIZUNAC sailean, sakramentuena dela azkenengo esan dugu eta halaxe da, liburuaren argitalpen-urteari bagagozkio, baina idazterakoan, dirudienez, Konfirmazioko eta Penitentziko sakramentuak behintzat «Araar Aguindubeen azqueneco bosteen Icasiquizunac» baino lehenago idatzi zituen. Alcala-n, 1816.eko azaroaren 29an ospatu zen Kontseilari Nagusien batzarrean lan horren berri eman zen:

«(...) se leyo una certification del P. Superior Presidente de Marquina en que se dice le ha entregado el P. Predicador de aquel Convento las platicas de los sacramentos de la Confirmation y Penitencia en cumplimiento de lo mandado para continuar en el uso de la patente de escritor».

Urte bereko abenduaren 7an Alcala-n bertan izandako batzarrean, aztertzaileek hitzaldi horiei ezarririko oharrak irakurri ziren. Oharrok egileari bidaltzea erabaki zen eta honek, idatziz, Ordenako Nagusiari erantzuna eman ziezaiola.

Madriren 1817.eko maiatzaren 10ean egindako batzarrean ere A. Bartolomek, idazle-agiridun jarraitu ahal izateko, sei hilabete haietan moldaturiko hitzaldiak aipatzen dira. Lan hau, komentuko buruaren esku utzi duela adieraziz, txosten bat bidali zaie batzarkideei, nagusiak halaxe dela bere zinduraz egiztatzen zuelarik.

ICASIQUIZUNAC izenik ez da inondik ageri batzarre haue-tako aipamenetan. Ia beti «platicas doctrinales» hitza dator; inoiz «sermones» edo ta «doctrinas catequisticas» ere bai. Bigarren aipatu dugunean zehatzago dio: «Platicas de los Sacramentos de la Confirmation y Penitencia\*». Beraz, ICASIQUIZUNAC saileko zein liburuz ari den ez dakigu, baina errez atara genezake 1817.eko maiatzaren 10erako atondu zuena, hamar aginduen azkenengo bostena dela.

Idazle-agiridum bat komentu bakoitzean izatea, zer-ikusit handikotzat zen orduan. 1817.eko maiatzean hauteskundeak izan ziren Catalanian eta Nafarroako S. Jokin Probintzian.

Madriren, maiatzaren Han ospatu zen Ordenako Kontseilari Nagusien batzarrean, kargu berrien albistea eman zen. Markinako komentuko Priore, A. Bartolome izendatu zutela eta gero zera gaineratzen du batzarreko agiriak: «(...) por votos secretos se acuerdo que siendo incompatible la patente de escritor con el oficio de Prior, se suspende el uso de dicha patente valiendose por lo que respecta a las impresiones de algun religioso inteligente que haga sus veces».

1818. urteko azaroaren 26an ospatu zen Palencia-n, Ordenako Kontseilari Nagusien beste batzarre bat; eta hementxe ematen da A. Bartolomez agiri honek dakarren azken albistea. Honelaxe dio: «Luego se leyo un memorial del R. P. Fra. Bartolome de S. Teresa Prior del Conv. de Marquina en la Prov. de Navarra, solicitando licencia para imprimir un libro de doctrinas catequisticas escrito por su Ra. en lengua Bascongada, y en V. Difin. por votos secretos mando se diese a censura al R. P. Damian de S. Teresa Difin. de aquella Provincia residente en Lazcano y al P. Fr. Manuel de Jesus lector de visperas en Pamplona\*».

Euskarazko liburuak direnik ere ez zaigu esan honarte. Batzarre horretan, «en Lengua Bascongada» esaten da; eta lehenengoz ematen dira aztertzaileen izenak ere.

Azken liburu hau, Sakramentuena dela argi dago, «...Marquinaco Carmen Ortoceco Prioriac ateraac» baitio; eta batzarrean ere, «Prior del Convento de Marquina» esaten da. Beraz, Konfirmazioko eta Penitentziako sakramentuak, dirudie nez, lehenago idatzi bazituen ere, besteekin batera orain argitaratzen ditu. Ala lorratzik utzi gabe galdu den beste argitalpenen bat egin ote zuen? Ez dirudi. Bakoitzaren argitalpeneko urtea garbi dago. Eta azken honen eskaintza, Kalahorrako Apezpiku Atanasio Puyal eta Povedari zuzentzerakoan ere ez du uzten zalantza-biderik. Hamar Aginduenak euskaldun apaizei eskaini dizkiela dio *lehenago*, eta harrera ezin hobea izan dutela bai haien aldetik eta baita Apezpikuaren aldetik ere, honek, pulpitutik eliztar euskaldunei irakurtzeko agindua eman baitzuen bere Elizbarrutian.

Eta gaztelaniaz zer? A. Bartolome idazle-agiridun izan zen eta gaztelaniaz ere idazle trebe izango zelakoa dugu.

Baina A. Bartolome opetsu egin eta goi-goraino jaso duena bere bizkaierazko prosa mardull eta oparoa da. Hala ere baditu gaztelaniazko lan batzuk ere. Hauen artean PLAUTO BASCONGADO. Juan Jose Mogel-ek zirikatu eta bultzatu omen zuen hau idaztera. Garai haretako idazle batzuk ez ziren, dirudienez, eritzi bereko. Mr. Fleury Lecluse eta Juan Ifiazio Iztueta, adibidez. Hauei zuzendutako ihardespena da «Anti-Plauto poligloto».

Idazle on eta etorri handikotzat har genzake gaztelaniaz ere. Sakramentuen alearen hitzaurrean Calahorrako Apezpiuari idazten dionean, trebetasun handia erakusten du, eta berdin frantzesak hemen sartu zireneko gertakari latzak Ordenako Nagusiari adierazten dizkionean. Juan Jose Mogel-ek, gizon bikain eta jakintsutzat zuen euskal gaietan, eta bere zalantzetan argi bila haregana jotzen du. Badaki Euskal Herrian, Bizkaian, Gipuzkoan eta baita Nafarroan ere asko ibilia zela bere eginkizuna betetzen, Beste aldetik, teologia aldetik ere ez zela edonor jakiteko, bere ICASIQUIZUNAC irakurtzea nahiko da. Tesi antzera taxutzen ditu gaiak; eta aurkezpena egin edo ta auzia zertan den adierazi ondoren, punturik puntu biribilduz eta burpila emanaz doa, gaia agortu arte; bere mezu mamintsua aurretiaz hautaturiko moldean ixuri arte. Hizkuntza aldetik ezezik, egitura eta edukiaren aldetik ere aztergarri litzateke A. Bartolome-ren lana. Tamalez nire oraingo helburua eta ahalmenak ez dira horraino iristen. Bego, bada, honetantxe, Markinako komentuan luzaro bizi izan zen karmeldar aipagarriaren goratzarre gisa.

Fr. Francisco de la Cruz

Paper hauetan ageri den beste idazlea Fr. Francisco de la Cruz da. Markinako komentuan A. Bartolome ta biak batera bizi ziren. A. Bartolome priore izendatu zutenean —prietza eta idazle— agiridun izatea biak pertsona bakar baten gain ezin egon eta— ordezkotzat hartu ote zuten, bada, Fr. Francisco hau? Baliteke, hura priore izendatu ta laster aurkezten baititu honek bere liburuska bi. 1817.eko azaroaren 29an, Ciudad Real-go batzarrean. Zer liburuska mota dira Fr. Franciscoren hauek?



«Se presento un memorial a que acompañan dos folletos manuscritos del P. Fr. Francisco de la Cruz, conventual del nuestro de Marquina en la Prov. de Navarra, en que se solicita poder dar a la prensa los dichos, que son un tratado de colmenas y otro, según se titula, de huertas de secano. Nada se determino sobre esta solicitud en esta sesión dexandola para otra».

Hurrengo hilean, abenduaren lehenengoan Ciudad Real-en bertan ospatu zen batzarrean, gai bera atera zen, beste arazo batzuren artean eta erabakia hauxe: Fr. Franciscok aurkezturiko liburuskak Nafarroako S. Jokin Probintziako Nagusiari bidaii eta honek izenda zitzala gai hauetaz jakintsu ziren bere agindupeko bi, aztertzaile legez.

1818.eko ekainean, Madrileko batzarrera bidaii zituzten aztertzaileek euren zuzenketak eta oharrak. Batzarreak, zuzenketa horiek egilearen eskutan jartzea erabaki zuen, honek erantzuna eman zezan. Urte berean azaroaren 27an eta Palencia-ko batzarrean eman zitzaion bukaera liburu-kontu honi. Paperetan, behintzat, ez dator beste aipamenik. Honela dio azkenengo honek:

«Luego se leyo la respuesta q. da el R. P. Fr. Francisco de la Cruz, conventual de Marquina a las objeciones que le ponen los Censores a su obra intitulada tratados de abejas y hortalizas en sequeros; y el V. Difin. por votos secretos dio comision en forma al V. Difinitorio de la Provincia de Navarra para q. informandose de personas inteligentes y especialmente de las Sociedades del Pais, y haciendo corregir los versos q. en la tal obra pone el Autor poniendolos en el metro correspondiente, de en nombre de este Definitorio la licencia para q. dicho Padre imprima la obra, si en los informes resulta utilidad y provecho de ella».

Fr. Francisco de la Cruz hau nongoa zenik ez beste zertzeladarik ez dakigu. Paperak ez du argibide zehatzik emanen. Liburuska horiek, azken batez argitaratu zirenik ere —baitz dirudi baina— zihurtasunik ez dugu. Markinako liburutegian ez artxibuan ez dut Ian horien lorratzik aurkitu. Gainera gaztelaniaz idatziko zituela egindakotzat eman genezake, holako gaiak euskaraz idazteko ohiturarik ez bai-

tzen orduan. Den a dela, idazle honetaz, lainope itsuan gaude. Beste korapilo bat datorkigu, gainera, goian aipaturiko L. Akesoloren idazlanetik. Honek, A. Bartolomez ari dela, gain-gainetik bezala, zera dio: «Companero suyo como conventual era otro fraile que tambien manejo la pluma, el autor de *Erle-gobernatzaillen Guidaria*: FR. JOAQUÍN DE SANTA BARBARA».

A. Bartolomek, frantzesak hemen sartu zireneko gertakariak Ordenako Nagusiari azaltzen dizkionean, haiek sartzerakoan Markinako komentuan zeuden guztien zerrenda dator: hogei ta bi koruko eta beste lau erlijioso etxeko zerbitzu-lanetarako. Izen hauen artean, biak datoz: bai Fr. Francisco de la Cruz eta baita Fr. Joaquin de Santa Barbara ere. Hor izenak datoz eta besterik ezer ere ez. Biei ezarten zaizkie antzerako lanak... Harritzekoa da, erabili dudana agiri horretan A. Bartolome eta Fr. Francisco-ren aipamenak zehatz-mehatz datozelarik, txintik ere ez esatea Fr. Joakin honenik...

OHARRA: Berriok, Ordenako Kontseilari Nagusien batzarretako liburutik jasoak dira. Honela du izenburua: «Libro de los Definitorios Generales que rige del que se celebren en nro. Colegio de Reus, siendo General N.M.R.P. Fr. Antonio de la Soledad. Año 1816» (Bibliot. Nac. de Madrid).

*Luis Baraiazarra*